

Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra

Lurralde-izaerako toki-erakundeek aitortuta dute eta beraien eremuan gauzaten dituzte eginkizun edo ahalmen arauemaileak edo antolamendukoak, plangintzakoak, programaziokoak, sustapenekoak eta kudeaketakoak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 15.2 artikulua araberak.

Toki eremuan egiten diren sustatze funtzioak gauzatzeko bidea izan da herritarren ekimenarekin elkarlanean aritzea, batez ere dirulaguntzen bidez, zerbitzuen kudeaketan eta interes publikoko jardueretan. Eskoriatzako Udalak diru-partida garrantzitsuak bideratzen ditu helburu horretarako urteko aurrekontuan.

Ekintza publikoaren arlo garrantzitsu hori arautzeko, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) aldarrikatu ziren.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak (DLO) Zioen Azalpenean adierazten du Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen printzipio gidariak aurrekontuaren ataletara eraman behar direla; dirulaguntza publikoak izanik horietako osagaietako bat, eta, aldi berean, gastu publikoaren modalitate garrantzitsua.

Dirulaguntza publikoak emateko prozeduran eskatuko den printzipio gidarietako bat gardentasunarena da, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legean oinarrituta hain zuzen ere. Bigarren printzipio nagusia efizientzia eta efikazia da dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan, eta diru-laguntzei buruzko informazio gehiago ematen du, merkatuan eragina izan dezaketen distortsioak eta interferentziak ezabatzeko, eta, gainera, administrazio publikoen jarduketan osagarritasuna eta koherentzia errazten du, gainjartzerik egon ez dadin. Eta, azkenik, ordenantza honek emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa ere beteko du.

Aurreko premisa horietatik abiatuta, administrazio publikoen dirulaguntzen jarduerak gardentasunari, finantza-kontrolari eta zehapen-araubideari dagokienez gaur egun eskatzen dituen premiei behar bezala erantzutea da helburua.

Toki-administrazioei dagokienez, 3.1.b) artikulua aplikazio-eremu subjektiboan sartzen ditu toki-administrazioa osatzen duten erakundeak, eta 9. artikuluan ezartzen du dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu behar direla dirulaguntzak eman aurretik, Legean aurreikusitako moduan. Lege horren 17.2 artikulua ezartzen du toki-korporazioen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak hauetako modu batean onartu beharko direla: aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez, edo dirulaguntzen modalitate bakoitzerako ordenantza espezifiko baten bidez. Azaldutako arrazoiak direla eta, komenigarritzat jo da dirulaguntzei buruzko ordenantza orokor bat egitea, gizarte-, kultura-, kirol- eta bestelako jarduerak kontuan hartuta. Ordenantza horren deialdiak ohikoenak dira udal-eremuan, hain zuzen ere, zerbitzu publikoen osagarri direlako. Horrela, dirulaguntzen deialdiak onartu aurretik ezarritako legezko betebeharrak bete beharko dira, zehaztapen orokor horiek kontuan hartuta.

Helburu horietarako, Udal Ordenantza honek Eskoriatzako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen ditu, epe-mugarik gabe, ekitaldi honetan eta hurrengoetan.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17. artikuluan ezarritakoari jarraiki, ordenantza honen helburua da dirulaguntzak emateko Eskoriatzako Udalaren irizpideak eta prozedura arautzea eta finkatzea.

Ordenantza honen ondorioetarako dirulaguntzat hartuko da Eskoriatzako Udalak, udal eskumeneko gaietan, pertsonen edo erakunde publiko zein pribatuen alde egindako diruzko edozein xedapen, dirutan edo beste moduren batean; betiere, baldintza hauek betetzen baldin badira:

- a) Dirulaguntza onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.
- b) Diru-ematearen helburua izatea helburu jakin bat betetzea, proiektu bat burutzea, jarduera bat egitea, portaera berezi bat hartzea (horiek denak eginda edo oraindik garatzekotan daudenak), edo egoera jakin bat gertatzea. Ezarritako obligazio material eta formalak bete beharko ditu dirulaguntzaren onuradunak.
- c) Finantzatutako proiektu, ekintza, portaera edo egoeraren helburua erabilera publiko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea edo helburu publiko bat sustatzea izatea.

2. artikulua. Aplikatzekoak diren arauak.

Dirulaguntzak ematea eta emailearen eta erakunde onuradunaren arteko harreman juridikoa udal ordenantza honen, dirulaguntza lerro bakoitzaren deialdia arautzen duten oinarri espezifikoen eta dirulaguntzak ematen diren unean indarrean dauden gainerako arauen arabera arautuko dira.

Udal aurrekontuan izendun gisa agertzen diren eta zuzenean ematen diren dirulaguntzetan Ordenantza hau aplikatuko da dagokion hitzarmen arauemaileak aurreikusi ez duen guztian eta zuzenean emateko dirulaguntzei buruzko legezko xedapenekin bat datorrenean.

Ordenantza honetan eta dagokion deialdian aurreikusi gabeko guztirako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, hori garatzeko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aplikatuko dira.

3. artikulua. Printzipio gidariak.

Ondorengo arauak jarraituko dira dirulaguntzak emateko:

- a) Dirulaguntza orok helburu publiko bati edo interes sozial bati erantzun behar dio, betiere, horiek sustatzea toki-administrazioaren esku badago. Dirulaguntzak emateko erabakiak erabat deusezak izango dira eskuzabaltasun hutsaren ondorio badira.
- b) Dirulaguntzak borondatezkoak eta behin-behinekoak izango dira, eta horiek emateak ez du eskubiderik sortzen eta ez du aurrekaririk ezartzen gerora eman ahal direneterako.
- c) Udalbatzarrak edozein unetan baliogabetu edo murriztu ahal izango ditu, dagokion espedientea tramitatu ondoren.
- d) Ezingo da eskatu dirulaguntza handitzerik edo berraztertzerik.
- e) Ez da dirulaguntzarik emango Udalak bere kabuz eta eraginkortasun berarekin eta gastu handiagorik gabe bete ditzakeen helburuetarako.
- f) Ordenantza honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak berekin ekar dezake, hala badagokio, proiektuaren edo jardueraren kostu osoa ordaintzea. Hala ere, zenbateko horrek ezin izango du inola ere gainditu dirulaguntza eskatzen den proiektuaren aurrekontua, berak bakarrik

edo beste administrazio publiko batzuekin edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin batera (estatukoak zein nazioartekoak izan).

g) Berdintasun, publizitate, gardentasun, objektibotasun, eraginkortasun, efizientzia eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera emango dira dirulaguntzak.

h) Arau hauetan aipatzen diren dirulaguntzen deialdiak, oro har, norgehiagoka-araubidean egingo dira, eta, dirulaguntza horiek emateko, prozedura bakar batean konparatu beharko dira eskaera batzuk eta besteak, arau hauetan eta, hala badagokio, deialdiko oinarrietan ezarritako irizpideen arabera, haien arteko lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko.

i) Ordenantza honen arabera urtero onartzen diren dirulaguntzen deialdiak argitaratu egingo dira.

4. artikulua. Ordenantza honetatik kanpo gelditzen diren laguntzak.

Dirulaguntzetatik kanpo gelditzen dira honako hauek:

a) Onuradunak aurrez eskatu gabe ematen diren sariak.

b) Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoan aurreikusitako dirulaguntzak.

c) Udalbatzarreko talde politikoentzako eta antzerakoentzako dirulaguntzak.

d) EUDELEN, Euskadiko Udalen Elkartearen, edo Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen den beste edozein udal elkarteren aldeko kuotak.

e) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren aurreikusitako gainerakoak.

5. artikulua. Dirulaguntzak emateko baldintzak.

1. Dirulaguntzak emateko honako baldintza hauek bete beharko dira aurrez:

a) Organo administratibo emaileak eskuduna izan behar du.

b) Aurrekontu egokia eta nahikoa egon behar du dirulaguntza ematearen ondorio diren obligazio ekonomikoari erantzun ahal izateko.

c) Dirulaguntza emateko prozedura tramitatu behar da berari aplikagarri zaizkion arauekin bat etorritz.

d) Eduki ekonomikoa duten egintza administratiboak aldeztatik fiskalizatu behar dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan eta Aurrekontua Gauzatzeko Arauan aurreikusitakoaren arabera.

e) Organo eskudunak gastua onetsi behar du.

2. Aurreko baldintzez gain, ezinbesteko baldintza izango da, oro har, Eskoriatzako udalerriko lurralde eremuan izatea proiektuaren xedea, helburua eta betearazpena, bertan gauzatzea jarduera, bertan hartzea ere jokaera berezia -nahiz horiek denak beteta egon nahiz garatze bidean egon- edo diruz lagundu beharreko egoera bertan gertatzea. Diruz lagundutako zirkunstantziak Eskoriatzako udalerriko lurralde eremua gainditzen dueneko kasu berezietan, berriz, baldintza izango da udal interesari onura egitea zuzenean edo zeharka; azken baldintza hau espedientearen behar bezala justifikatu beharko da, arrazoituta txosten baten bidez, dirulaguntza eman aurretik. Paragrafo honetan ezarritako baldintza ez da eskatuko garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzaren programaren barruan.

3. Era berean, ezinbesteko baldintza izango da hizkera ez sexista erabiltzea dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko dira, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rol eta identitateen aniztasuna sustatu beharko dira.

6. artikulua. Dirulaguntzak emateko organo eskudunak.

Eskoriatzako Udalean dirulaguntzak emateko eskumena Alkatezari dagokio; hala ere, eskumen hori eskuordetu ahal izango du, toki-araubidearen legerian aurreikusitako baldintzetan.

7. artikulua.- Aurrekontu kreditua.

Dirulaguntzak gastu publikotzat hartuko dira, eta horien eraginkortasuna deialdi bakoitzean aurreikusitako aurrekontu-kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo da.

Erabat deusezak izango dira dirulaguntzak emateko erabakiak alde aurreko aurrekontu-esleipen egokirik eta nahikorik gabe egiten badira.

8. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunak.

1. Dirulaguntza jaso ahal izango dute ordenantza honetan, dagokion deialdian eta indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek.

2. Elkarre eta fundazioek, dirulaguntzen onuradun izateko, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko dute.

3. Garapenerako lankidetzaren esparruko dirulaguntzen kasuan, gobernu kanpoko erakundeek, fundazioek edo elkarre, baldin eta beren estatutu-helburuen artean garapenerako lankidetzarekin eta herrien arteko elkartasuna sustatzearekin zerikusia duten jarduerak egiten badituzte, dagokien erregistro publikoan inskribatuta egon beharko dute.

4. Onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoen taldeak, publikoak zein pribatuak izan, bai eta ondasun-erkidegoak edo bestelako unitate ekonomikoak ere, nortasun juridikorik izan ez arren proiektuak edo jarduerak egin badituzkete edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran badaude, betiere deialdi bakoitzean horrela aurreikusten bada. Kasu horretan, berariaz jaso beharko dira, bai eskabidean, bai dirulaguntza emateko erabakian, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako egikaritze-konpromisoak, bai eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta horiek ere onuraduntzat hartuko dira

5. Indarrean dagoen araudiaren arabera eskubide hori mugatuta edo kenduta duten pertsonak edo erakundeak ezin izango dute dirulaguntza horiek jaso. Era berean, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso ebazpen irmo bidez ebazpenak zehazten duen eperako eskubidea galtzearekin zigortuak izan direnek edo Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenean.

Aurrekoa hala izanik ere, dirulaguntzaren izaeragatik eta aipatutako 13. artikuluko horretako 2. ataleko lehen paragrafoan jasotako aurreikuspenaren babesean, b) eta e) letrek jasotzen dituzten debekuetatik salbuetsita gelditzen dira honako inguruabarrak dituzten pertsona edo entitate hauek:

a) Norbanakoei emandako laguntzak, baldin eta beren errenta-maila baxuak mugatu edo justifikatzen badu laguntza horiek ematea, edo laguntza onuradunaren errenta maila-baxua konpentsatzeko ematen bada

b) Premiazko arrazoiengatik eman direnak, hondamendien, naturak eragindako ezbeharren edo onartutako larritasuna duten bestelako onorioz sortutako kalteak konpontzeko. Dirulaguntza eta bestelako laguntza horien deialdian salbuetsita gelditu ahal izango dira legezko beste debeku kasu batzuk.

6. Inola ere ezingo dute onuradun izaerarik izan Eskoriatzako Udalak emandako dirulaguntzak justifikatzeko dituztenek, behin justifikazio hori aurkezteko epea bukatuz gero, kontuan hartu gabe DLoren Araudiaren 70.3 artikulua aipatzen duen errekerimendua egin den ala ez. Debeku horren ebaluazioa modu automatikoan egingo da, eta indarrean egongo da justifikazioa aurkeztu arte.

7. Aurreko ataletan aurreikusitakoaz gain, pertsona fisiko edo juridikoek bete beharko dituzte deialdi bakoitzean berriaz adierazten diren baldintzak, eta dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharko dituzte baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak. Inola ere ezingo dute onuradun-izaerarik izan Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean onuradun edo entitate laguntzaile izateko desgaitutzat azaltzen direnek, desgaitasunak irauten duen aldian.

8. Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

a) Pertsona fisikoak edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.

b) Sexuaren ziozko bereizkeriagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.

c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.

d) Elkartekide izateko onarpen prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkartek.

Debekua ezartzen da bat etorrira xedapen hauekin: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.1 eta 24.2 artikuluekin; Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoarekin; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluekin, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluekin.

9. DLoren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekurik ez dagoela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

10. Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, pertsona edo erakunde eskatzaileak dirulaguntza ematen duen organoari aurkeztu beharko dizkio DLoren Erregelamenduaren 22. artikuluan arautzen diren egiaztariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandakoak. Hala eta guztiz ere, pertsona edo entitate onuradunak ez baditu aitortpenak edo berauei dagozkien agiriak aurkezteko obligaziorik, zerga-betetze hori erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da honoko kasu hauetan:

a) Onuradun bakoitzari eman beharreko dirulaguntzak ez badira, deialdian, 3.000 eurotik gorakoak.

b) Administrazio publikoei eta, orobat, administrazio horien mende dauden erakunde, entitate publiko eta sektore publikoko fundazioei emandako dirulaguntzak.

c) Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta horien federazio, konfederazio edo elkarteei ematen zaizkien gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko dirulaguntzak.

d) DLOren Erregelamenduaren 24. artikuluan jasotako beste edozein inguruabar gertatzen denean.

11. Ez da beharrezkoa izango eskabideekin batera Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztea, baldin eta Eskoriatzako Udalari baimena ematen bazaio zuzenean eskura ditzan zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren inguruabarrak ziurtagiri telematikoen bidez.

12. Ziurtagiriek eta aitopenei sei hilabeteko balioa izango dute ematen diren egunetik zenbatzen hasita. Dirulaguntza osorik edo zati batean eman edo kobratu aurretik iraungitzen badira, pertsona edo erakunde interesdunak edo onuradunak, zerbitzu kudeatzaileak hala eskatuta, ziurtagiri edo adierazpen eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

13. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak egunean izateko baldintzak ez dira soilik egiaztatu beharko dirulaguntza ematen den unean, baita betebeharra onartzen den unean ere.

9. artikulua. Pertsonen edo erakunde onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

1. Pertsona edo erakunde onuradunek eskubidea dute emandako zenbatekoa kobratzeko, dagokion deialdian, hitzarmenean edo dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzetan. Era berean, ahalmena dute, deialdiak debekatzen ez badu, dirulaguntza ematen duen organoari eskatzeko, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, dirulaguntza emateko erabakia aldatzeko, finkatutako epeak luzatzeari, emandako zenbatekoa murrizteari edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzeari dagokienez. Horiek baimendu ahal izango dira ezusteko arrazoiren batek eragindakoak baldin badira edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak izan, betiere, dirulaguntzaren helburua ez bada aldatzen eta hirugarrenen eskubideei kalterik eragin.

2. Deialdiek, hitzarmenek edo dirulaguntza emateko erabakiek jasotzen dituzten betebeharrak espezifikokoak gorabehera, Eskoriatzako Udalaren dirulaguntzen onuradunek honako betebeharrak orokor hauek izango dituzte:

a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzeko, ekintza egitea edo dirulaguntza emateko oinarria den portaera hartzea.

b) Dirulaguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.

c) Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

d) Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketari men egitea eta laguntza ematea, indarrean dagoen legeriaren arabera, bai eta kontrol-organoei egin dezaketen beste edozein egiaztapen eta finantza kontrolari ere, eta jarduketari horietan eskatzen zaien informazio guztia ematea.

e) Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzeko zaion merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatzen duen moduan, bai eta dirulaguntzen oinarri espezifikokoak eskatzen dituzten kontabilitate-egoera eta erregistro espezifikoko guztiak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala baliatzen direla bermatzeko.

- f) Jasotako dirua zertan erabili duen egiaztatzeko dokumentuak, dokumentu elektronikoak barne, lau urtez gordetzea egiaztatze eta kontrol jardunak egin ahal izateko.
- g) Dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraztea, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu direla beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuetatik, estatukoak zein nazioartekoak.
- h) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektiboa zein subjektiboa aldatuz gero, horren berri ematea Eskoriatzako Udalari.
- i) Jasotako dirua itzultzea Ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan.
- j) Diruz lagundutako jarduera hedatzeko ekintzetan Eskoriatzako Udalak diruz lagundu duela adierazi beharko da.
- k) Jarduera gauzatzean, pertsonaren oinarrizko eskubideak behar bezala errespetatuko dira eta indarrean dagoen legeria errespetatuko da.
- l) Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak eta hura garatzeko xedapenek hizkuntza arloan ezartzen dituzten betebeharrak betetzea.
- m) Indarrean dagoen araudi aplikagarri oro errespetatzea. Bereziki, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

10. artikulua. Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

1. Oro har, diruz lagundu beharreko proiektuaren edo jardueraren aurrekontua, pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutakoa, edo haren ondorengo aldatetako, erreferentziatzen hartuko dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, eta zenbateko hori proiektuaren edo jardueraren amaierako kostuaren ehuneko gisa kalkulatu ahal izango da. Kasu horretan, Eskoriatzako Udalak egindako balizko finantziazioaren soberakina kalkulatzeko, ekarpen horrek kostu osoarekiko duen proportzioa hartuko da erreferentziatzen, dirulaguntza arautzen duen araudiarekin eta dirulaguntza emateko deialdiaren, hitzarmenaren edo erabakiaren baldintzekin bat etorritik. Hala ere, dirulaguntzaren izaeraren eta helburuen edo helburu sozialen arabera, ekarpen publikoa zenbateko zehatza izan daiteke –kostu osoaren portzentaje edo frakzio bati erreferentzia egin gabe–; kasu horretan, pertsona edo erakunde onuradunaren kontura geratzen da diruz lagundutako jarduera osorik gauzatzeko behar den finantziazio aldea, eta, hala badagokio, finantziazio publikoa itzuli beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzen duen zenbatekoan.

2. Diruz lagundutako jarduera pertsona edo erakunde onuradunaren baliabide propioekin finantzatu da, dagokion zenbatekoan edo proportzioan, dagokion deialdian, dirulaguntza emateko erabakian edo hitzarmenean hala ezartzen denean.

3. Oro har, eta deialdian, hitzarmenean edo dirulaguntza emateko erabakian adierazitakoaren kalterik gabe, Ordenantza honen arabera emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako estatuko, Europako Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatutik jasotako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabiderek, betiere, laguntza edo dirulaguntza horiek arautzen dituzten araudiek ezarritakoaren kalterik gabe. Izan daitezkeen kofinantziazio kasuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

3.1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, inola ere gainditu diruz lagundutako proiektu edo jardueren kostua. Muga hori egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu beharko da, eta justifikazio-kontuan diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatua jaso beharko da, zenbatekoak eta jatorria adierazita.

3.2. Proiektuaren edo jardueraren kostua baino finantziario handiagoa balego, onuradunak gainfinantziario hori itzuli beharko du, berandutze-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina dirulaguntza eman duten erakundeei itzuliko zaie, bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, Eskoriatzako Udala bada gehiegizko finantziarioa ikusten duena, soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, hark emandako dirulaguntzaren mugaraino.

11. artikulua. Dirulaguntzak emateko erabakia aldatzea.

1. Hamargarren artikuluan ezarritako kasuetatik eta baldintzetatik kanpo beste ekarpen batzuk aldi berean lortuz gero, dirulaguntza emateko erabakia aldatu beharko da.

2. Dirulaguntza emateko erabakia pertsona edo erakunde onuradunak eskatuta aldatu ahal izango da –Ordenantza honen 9.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera–, baldin eta gerora sortutako eta aurreikusi ezin diren inguruabarrek dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzea badakarte, betiere baldintza horiek ez badituzte indargabetzen emandako dirulaguntzaren izaera edo helburuak, aldaketak hirugarren pertsonen edo erakundeen eskubideak kaltetzen ez baditu eta eskaera jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkezten bada.

3. Dirulaguntza emateko erabakia behin hartu ondoren, doikuntza bat egin ahal izango da dirulaguntzako proiektu edo jardueraren gastuen banaketan, dirulaguntza ematen duen organoaren alde aurreko baimenarekin, betiere baimenak ez badie kalterik egiten hirugarren pertsona edo erakundeen eskubideei.

12. artikulua. Udal dirulaguntzen inguruko publikitatea

1. Eskoriatzako Udalak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera bidaliko du udal dirulaguntzen inguruko informazioa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 20. artikuluan ezarritako baldintzetan.

2. Era berean, Eskoriatzako Udalak emandako dirulaguntzak Eskoriatzako Udalaren webgunean argitaratuko dira, zenbatekoa, helburua eta onuradunak zehatz-mehatz adierazita, deialdiak, dirulaguntza emateko erabakiak edo hitzarmenak adierazitako beste edozein hedabidetan argitaratzearen kalterik gabe. Horri dagokionez, bereziki babestutako datuak dituen informazioak, publikitatea datu horiek bereizi ondoren baino ez da egingo.

3. Udalaren egoitza elektronikoak dirulaguntzak eta sariak emateko prozedurei buruzko informazioa jasoko du, prozedura horiek eta, gutxienez, horiek garatzeko fase nagusiak alde aurretik ezagutu ahal izateko. Bereziki, honako eduki hau jasoko da beti:

a) Dirulaguntzari buruzko informazio orokorra, dirulaguntzari dagokion ordenantza edo arau arautzailearen informazio laburtuarekin, bai eta ordenantza edo arau horretarako lotura ere.

b) Interesdunek erabili beharreko eskaera-inprimakiak eta, hala badagokio, eranskinak.

c) Prozedurari buruzko erabakia, salbu eta legez justifikatuta badago esleipendunaren datuak publikitatetik kanpo uztea.

4. Pertsona edo erakunde onuradunek, beren programa, jarduera, inbertsio edo jarduketan finantzaketaren izaera publikoa zabaltzeko –Ordenantza honen 9.j) artikuluan ezarritako baldintzetan– betebeharrari kalterik egin gabe, jasotako dirulaguntzen eta laguntzen publikitatea egin beharko dute Estatuko eta autonomia-erkidegoko gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legerian ezarritako terminoetan eta baldintzetan. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspena erabiltzen

badute, Dirulaguntzen Datu Base Nazionala bitarteko elektronikoa izango da publizitate-betebeharrak betetzeko.

II. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURAK

13. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak.

1. Dirulaguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka izango da. Prozedura horretan, aurkeztutako eskaerak alderatu behar dira, lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko berariazko deialdian aurrez ezarritako balorazio-irizpideen arabera. Horrela, kreditu erabilgarriaren barruan eta deialdian ezarritako mugarekin, balorazio handiena lortu dutenei emango zaizkie dirulaguntzak. Hala ere, ez da beharrezkoa izango lehentasun-hurrenkera bat ezartzea, baldin eta deialdian adierazitako kreditua nahikoa bada, behin aurkezteko epea amaituta, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko.

2. Zuzenean eman ahal izango dira 19. artikuluan aurreikusitako dirulaguntzak:

3. Ezingo da deialdian zehazten den zenbatekoa baino gehiagoko dirulaguntzarik eman, ezta aurreikusitako aurrekontu-egozpenaren urteko mugak gainditu ere. Behar besteko aurrekonturik ez izateagatik erantzuten ez diren eskaerak ezetsi egingo dira. Deialdian ezarri ahal izango da kreditu faltagatik behin betiko ukatzen diren eskaerak lehentasuna izango dutela hurrengo deialdian.

14. artikulua. Dirulaguntzak eskatzeko lekua eta epea.

Eskabideak H@ZIn (Herritarren Arreta Zerbitzu Integralean) aurkeztu beharko dira aurrez aurre edo, bestela, bide elektronikoz, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoan (www.eskoriatza.eus). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Bide elektronikoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikulua horretara behartzen dituen subjektuek erabili beharreko bidea, hala nola pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek, besteak beste.

Eskaerak aurkezteko epea hogeit egun baliodunekoa izango da, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, betiere, deialdi espezifikoak beste epe bat ezartzen ez badu.

Dirulaguntza izendunen kasuan, eskaera egiteko epea urtarriletik urrira bitartekoa izango da, dirulaguntza emateko prozedura ekitaldiaren barruan osatzeko.

1. ATALA. Norgehiagoka araubidean emateko dirulaguntzak.

15. Artikulua. Prozedura.

1. Dirulaguntzak norgehiagoka-araubidean emateko prozedura ofizioz hasiko da beti, organo eskudunak, dagokion batzorde informatzaileak aurrez diktamena emanda, onartutako deialdi publikoaren bidez, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratuko da.

2. Dirulaguntzen deialdiak behar besteko aurrerapenarekin argitaratu beharko dira, pertsona edo erakunde onuradunak jarduera eraginkortasunez garatzeko eta, ondoren, horiek justifikatzeko, behar duen denbora izan dezan,

16. artikulua. Deialdiaren edukia.

1. Deialdiak eduki hau izango du nahitaez:

a) Adierazi beharko dira oinarri arautzaileak ezartzen dituen xedapena eta zein aldizkari ofizialean argitaratuta dagoen, salbu eta beraien espezifikotasunagatik, oinarriak deialdian bertan sartzen badira.

b) Dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egozten zaion, eta kreditu erabilgarrien barruan deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, edo, halakorik ezean, dirulaguntzetarako kalkulaturako zenbatekoa.

c) Dirulaguntzaren xedea, baldintzak, helburua, diruz lagundutako jarduera egiteko epea eta ordaintzeko modua.

d) Dirulaguntza norgehiagoka-araubide baten bidez ematen dela adieraztea.

e) Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.

f) Prozedura bideratu eta ebazteko organo eskudunak.

g) Eskakerak aurkezteko epea.

h) Erabakitze epea eta jakinarazpena.

i) Eskarearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.

Adierazi beharko da dirulaguntza eskatzen duenak aukera izango duela Udalari baimena emateko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria edo agiria eskura dezan.

j) Hala badagokio, eskaerak birformulatzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

k) Erabakiak administrazio bidea agortzen duen edo ez adieraztea.

l) Eskakerak baloratzeko irizpideak.

m) Nola jakinaraziko den edo non argitaratuko den, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

n) Ordainketa aurreratutako eta konturako ordainketak egiteko aukera. Deialdian aurreikuspen hori jasotzen ez bada, pertsona edo erakunde onuradunak jarduera edo proiektua egin dela justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza.

o) Hala badagokio, pertsona edo erakunde onuradunek edo erakunde laguntzaileek eratu behar duten bermea.

p) Dirulaguntzaren bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

q) Justifikazio epea eta era.

r) Proiektuan aldaketak sartzeko aukera, aurreikusi gabeko inguruabarren ondorioz.

s) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzi edo grafiko guztietan Udalaren finantzaketa publikoa jasotzeko baldintza.

2. Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak deialdian ezarriko dira, eta, besteak beste, programa edo proiektuaren balorazioari eta pertsona edo erakunde eskatzailearen ezaugarriei buruzkoak izango dira.

Oinarriek finkatzen dituzten irizpide espezifikoek gain, honako hauek jotzen dira oinarritzotzat dirulaguntzak emateko:

a) Sozietatearen xedea eta erakunde eskatzaileen jarduerak udal eskumenen eta jardueren osagarri izatea.

b) Jardueraren interes orokorra edo espezifikoa, ekitaldi bakoitzerako irizpide eta lehentasunen arabera.

c) Antzeko jarduerarik ez izatea edo nahikoa ez izatea.

d) Eskaera egiten duten herritarren erakundeen ordezkagarritasuna, zuzeneko eta zeharkako onuradunak baloratuta.

e) Ahalmen ekonomiko autonomia eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotzen dituzten laguntzak.

f) Garatutako edo egin nahi diren jarduerak Eskoriatzarako duten garrantzia.

g) Auzotarren parte-hartzea sustatzea, bizi-kalitatea, gizarte-ongizatea eta auzotarren eskubideak bultzatuz.

h) Programak edo proiektuak beste toki erakunde batzuekin lankidetzan garatzea.

3. Dirulaguntzen deialdietan, pertsona edo erakunde onuradunek izan behar dituzten inguruabarrak eta laguntza emateko prozeduran baloratu behar diren merezimenduak edo inguruabarrak egiaztatzeke behar diren dokumentuak eta informazioak aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera, salbu eta eskatutako dokumentuak administrazio honen esku badaude; kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpen batekin ordeztu ahal izango dira, eta bertan adieraziko da zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren, edo, hala badagokio, eman ziren edo dauden, betiere, dagozkion prozeduraren amaieratik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Hala eta guztiz ere, administrazio honek ezin badu agiria materialki eskuratu, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko, edo, bestela, dokumentuan aipatzen diren betekizunak beste bitarteko batzuen bidez egiaztatzeke, erabaki proposamena egin aurretik.

17. artikulua. Prozeduraren instrukzioa.

1. Eskoriatzako Udalaren eremuan dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa prozedura tramitatzeaz arduratzen den administrazio arloko funtzionario bati dagokio, eta funtzionario hori deialdian izendatuko da.

2. Prozeduraren instrukzio-egileak ofizioz egingo ditu erabaki proposamena egiteko erabili behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeke beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak.

3. Instrukzio-jarduerak honako hauek izan behar dituzte nahitaez:

- Eskerak ebaluatzea, berriazko ordenantzan eta deialdian ezarritako irizpide, modu eta lehentasunen arabera. Ordenantzak eta deialdiak aurre-ebaluazio fase bat aurreikusi ahal izango dute. Fase horretan, dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da.

- Instrukzio-zerbitzuaren txostena, non jasoko baita, duen informazioaren arabera, pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntza jasotzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

4. Eskerak ebaluatu eta horien berri eman ondoren, instrukzio-zerbitzuak dirulaguntzak emateko proposamena egingo du, eta batzorde baten irizpenera aurkeztuko da. Batzorde horren osara deialdian zehaztuko da.

5. Batzordeak, aurkeztutako proposamena ikusita, irizpen bat emango du, eta, irizpen hori, instrukzio-zerbitzuaren bidez, organo eskudunaren esku jarriko da erabakia har dezan.

6. Deialdietan aurreikusi ahal izango da, laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituztenek eskatutako zenbatekoen batura deialdiko zenbatekoa baino handiagoa bada, zenbateko hori onuradunen artean hainbanatuko dela onartutako proiektuen edo programen aurrekontu doituen proportzioan, betiere dirulaguntzaren baldintzak, xedea eta helburua aldatzen ez badira. Hala ere, onuradun edo proiektu bakoitzak jaso beharreko banakako kopurua nahikoa ez bada laguntzen eraginkortasunerako, ez da hainbanaketa aplikatuko.

18. artikulua. Prozedura erabakitzea.

1. Erabaki proposamena, gainerako espedientearekin batera, jaso ondoren, organo eskudunak prozedura erabakiko du.

2. Ordenantza honetan eta dirulaguntza arautzen duen deialdian xedatutakoaren arabera arrazoituko da erabakia, eta, nolana ere, prozeduran egiaztatu beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak. Horri dagokionez, berriaz adierazi beharko dira honakoak: eskatzailea edo dirulaguntza zein eskatzaileari ematen zaion, zenbatekoa, eta, hala badagokio, eskaera ezetsi zaien gainerako eskatzaileak, eskaeren ebaluazioa eta dirulaguntza emateko nahiz ukatzeko jarraitu diren balorazio-irizpideak zehaztuta.

Kasu horretan, onuradunetako batek dirulaguntzari uko egiten badiu, dirulaguntza ematen duen organoak erabakiko du, beste deialdirik egin beharrik gabe, dirulaguntza onuradunaren ondorengo eskatzaileari edo eskatzaileei ematea, puntuazioaren arabera hurrenkerari jarraituz; baldin eta onuradunetako batek uko eginez gero, gutxienez ukatutako eskabide bati erantzuteko adina kreditu liberatu bada.

Dirulaguntza ematen duen organoak interesdunei jakinaraziko die aukera hori, ados baldin badaude administrazio organoak dirulaguntza emateko beste erabaki bat har dezan.

3. Jarduera bat finantzatzea helburu duten dirulaguntzetan, dirulaguntza emateko erabakietan zehaztuko da zer epetan garatu behar diren, kontuan hartuta, hala badagokio, pertsona edo erakunde onuradunak egindako lan-programa edo proposamena eta aurrekontu-kredituen behin-behinekotasunaren ondoriozko mugak.

4. Erabakian adierazi beharko da zein errekurtsu aurkez daitezkeen horren aurka, baita zein administrazio edo auzitegi organotan eta epetan aurkeztu ere, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein bide ere erabiltzearen kalterik gabe.

5. Erabakitzeko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi irekiaren kasuan izan ezik; kasu horretan, prozedura bakoitzean erabakitzeko eta eskabideak aurkezteko gehieneko epea deialdian zehaztutakoa izango da. Epea dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera zenbatuko da, salbu eta deialdian bertan geroko data batera atzeratzen badira ondorioak.

6. Erabakia eskatzaileei jakinaraziko zaie, eta onuradunek onartutzat jo dutela ulertuko da baldin eta, erabakia jaso eta hamar egun igaro ondoren, interesdunak ez badu kontrako egintzarik gauzatzen.

7. Dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, eta onuradunen publizitatea ziurtatzen duten beste bitarteko batzuk erabiliko dira, hala nola egoitza elektronikoa eta udalaren webgunea.

Ez da beharrezkoa izango onuradunaren datuak argitaratzea, baldin eta, dirulaguntzaren helburua dela-eta, pertsona fisikoen ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra errespetatzearen eta zaintzearen aurkako badaiteke, Ohorerako, Intimitate Pertsonalerako eta Familiarako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eta hura arautzen duen araudian aurreikusitako bada.

8. Gehieneko epea igaroz gero interesdunei erabaki legitimoa jakinarazi gabe, interesdunek zilegi izango dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitatzat jo dela ulertzeko.

2. ATALA. Dirulaguntza zuzenean emateko erregimena.

19. artikulua. Motak.

Dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira, eta norgehiagoka eta publizitatea ez dira nahitaezkoak izango, honako kasu hauetan:

a) Udalaren hasierako aurrekontu orokorrean edo osoko bilkurak onartutako kreditu-aldaketetan izenez izendatuta daudenean.

b) Dirulaguntza ematea edo zenbatekoa lege-mailako arau batek ezartzen duenean, horrelakoetan, dirulaguntza horietako bakoitzari aplikatu beharreko araudian ezarritako prozedura jarraituko da.

c) Salbuespen gisa:

c.1) Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen diren dirulaguntzak, eta behar bezala justifikatuta dauden eta deialdi publikoa egitea zailtzen duten beste batzuk.

c.2) Norghegiagoka printzipioa aplikatzeko zailtasuna justifikatuta duten beste dirulaguntza batzuk.

20. artikulua. Prozedura.

1. Prozedura tramitatzeaz arduratzen den administrazio zerbitzuko funtzionarioak hasiko du ofizioz dirulaguntza emateko prozedura, edo interesdunak eskatuta hasiko da, eta ezinbestekoa izango da udal-aurrekontuan aurrekontu-kontsignazio bat egotea. Kontsignazio hori, dirulaguntza izenduna bada, dirulaguntza jasoko duen pertsona publiko edo pribatuaren aldekoa izango da.

2. Funtzionario arduradunak ofizioz egingo ditu beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak erabaki proposamena egiteko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko, eta erabakia egiteko beharrezkotzat jotzen dituen edo dirulaguntza arautzen duten arauak eskatzen dituzten txosten guztiak eskatuko ditu. Instrukzio-jarduerek nahitaez jaso beharko dute prozeduran kreditua atxikitzeko kontabilitate-agiria, aurrekontuan kontsignatutako gehieneko zenbatekoarekin, eta dirulaguntza arautzen duen hitzarmenaren testua egin beharko da.

3. Instrukzioa osatu ondoren, dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunari helaraziko zaio, onar dezan.

4. Ordenantza honetan eta indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera arrazoitu eta jakinaraziko da erabakia.

5. 1.000 eurotik gorako dirulaguntza izendunen kasuan, Udalaren eta erakunde edo pertsona esleipendunaren arteko hitzarmena sinatuko da.

6. Dirulaguntzak emateko erabakiak edo hitzarmenak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

a) Dirulaguntzaren helburuaren definizioa.

b) Aplikatu beharreko araubide juridikoa.

c) Onuradunak.

d) Dirulaguntzaren modalitatea.

e) Dirulaguntza indibidualizatuaren gastua eta zenbatekoa egozten zaion aurrekontu-kreditua, onuradun bakoitzarentzat, bat baino gehiago badira.

f) Beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik helburu bererako emandako beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

g) Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak.

h) Ordainketa aurreratutak eta konturako bonuak egiteko aukera, bai eta onuradunek aurkeztu beharko duten berme-araubidea ere, hala badagokio.

i) Onuradunek dirulaguntzaren helburua bete dutela eta jasotako diruak erabili direla justifikatzeko epea eta modua.

7. Dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20.8 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, eta onuradunen publizitatea ziurtatzen duten beste bitarteko batzuk erabiliko dira, hala nola egoitza elektronikoa eta udalaren webgunea.

Ez da beharrezkoa izango onuradunaren datuak argitaratzea, baldin eta, dirulaguntzaren helburua dela-eta, pertsona fisikoen ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra errespetatzearen eta zaintzearen aurkakoa izan badaiteke, Ohorerako, Intimitate Pertsonalerako eta Familiarako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eta hura arautzen duen araudian aurreikusi bada.

III. KAPITULUA.

DIRULAGUNTZA PUBLIKOEN KUDEAKETA

21. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak dagokion deialdian, erabakian edo hitzarmenean zehaztuko dira, artikulua honetan, DLoren 31. artikuluan eta DLoren 83. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, indarrean dagoen lege-esparruaren eta ordenantza honetako aurreikuspenen arabera, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, deialdian, hitzarmenean edo dirulaguntza emateko erabakian

